

han-hemen

Genevako ospitaleko arduradunak haserre daude Arabiako Fahd erregearekin

Arabiar Emirerri Batuetako errege Fahdi ebakuntza egin behar diote, begi-lausoak direla eta. Genevako Unibertsitateko Ospitalera jo zuen duela egun batzuk, ebakuntza-aren inguruko zenbait eskakizun egiteko. Eskaera horiek, baina, ospitaleko medikuak haserrarazi dituzte. Izan ere, ebakuntza AEBetako mediku batek egitea nahi zuen erregeak, eta ebakuntzak irauten zuen bitartean ospitaleko zainketa berezietako hainbat gela hutsik edukitzea.

Brisbane eta Sydney elkarren aurka ari dira, Brad Pitten film bat bereganatzeko

Australiako Brisbane eta Sydney hirien arteko harremana ez ohi da ona izan, baina egun are okerragoa da. Izan ere, Brad Pitt aktorea *The fountain* filma grabatzen hasiko da Australian datozen egunotan, eta aktoreak, antza, filmatze lanak Brisbanetik Sydneyra eramateko eskatu du. Aktoreak esan duenez, «epe luze baterako egokiagoa da Sydney aktore batentzat». Horregatik, lehian dabilta Gales Berriko Hegoaldeko estatuko buru Bob Carr eta Queenslan estatuko buru Peter Beattie, nork bere hiriaren dohainak erakutsi nahian.

Ehunka ardi hil dituzte otsoek Alpeetako amildegi batean

Frantziako Mercantour parke nazionalako ardura-



RENE MACURA / AP

'Full frontal' filma estreinatu dute Kalifornian

Brad Pitt eta Jennifer Aniston bikoteak ez zuen hutsik egin herenegun, Beverly Hillsen (Kalifornia, AEB) izan zen 'Full Frontal' filmaren estreinaldian.



J.J. GUILLEN / EFE

«Erromatar horiek eroturik daude»

Atzodanik ikusgai da *Asterix et Obélix: mission Cleopâtre* filma Hego Euskal Herriko zinematokietan. Atzo, Madril (Espainia) izan zen Gerard Depardieu, eta «erromatar horiek eroturik daude» esana gogoratu zuen.



ANAT GIVON / AP

John Travoltak munduari ematen ari zaion itzulian jarraitzen du

Boeing 707 hegazkina gidatzeko baimena lortu ondoren, John Travolta hegazkin pilotu hasiberria munduari itzulia ematen hasi zen, bere hegazkinarekin. Atzo, Hong Kongen atsedean hartu zuen, eta aireportuan 2 urteko Ella alabarekin azaldu zen. Laster airean izango da berriz ere.

dunek esan dutenez, 400 ardi inguru hil zituzten zenbait otsok joan den asteburuan Alpeetako alde horretan. Ardiok amildegi batetik behera jausi ziren, baina dozena bat ardiri aurretik hozka egin zietela ikusi zuten. Antza, erasoak pairatu zuten animaliek amildegira eramanean zituzten gainerakoak. Eraso horren ondorioz, berriz piztu da eztabaida, otsoak Alpeetan zabaltzea komeni ote den.

Isabel Allendek bere lanaren kalitatea defendatu du

Txileko idazle Isabel Allendek bere literatur la-

na defendatu zuen atzo, eta ukatu bere eleberrien arrakasta publizitateak eragindakoa izatea. «Jendeak uste du marketin apur batekin hondarra ere sal daitekeela basamortuan, eta hori ergelkeria da», esan zuen *La casa de los espíritus* lana idatzi zuen idazleak. Kalifornian (AEB) egindako adierazpenetan, barre egin zien Salvador Allende zenaren abizena duelako saltzen duela esaten dutenei: «Barregarria da pentsatzea norbaitek zerbait saltzea Allende abizena duelako». Datorren urtean Txileri buruzko beste liburu bat argitaratuko duela iragarri zuen.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222